

LEHEN ATALA:
argudio-teoriaren estatutua

Sarrera.

Argudiatzen ikasi behar du kazetariak

ERREDAKTORE-BURUAK ESAN DIO BEKADUNARI: *hogeita bost lerro behar dizkinat, agian editorialerako, agian iruzkin baterako*. Eta, joan egin da bere kristalezko burbuilara.

Kazetari gaztea mutu gelditu da, ez daki oso ondo zer eskatzen zaion. Izerdia nabaritu du eskuetan, baina, ezertan hasi aurretik, konturatu da ezen eskuetako izerdia icebergaren gailurra besterik ez dela, zeren, izerditan, gorputz osoa baitauka, eta hats nabaria du. Lanetik itzultzen ari den ikazkina ematen du.

— *Halakoa izango ote da nire hatsa besteentzat ere?*, lotsaturik.

Hogeita bost lerro horiek atzera eta aurrera darabiltza bere buruan. Izan ere, erredaktore-buruak agindu zehatza emana dio: *hogeita bost*. Agian editorial baterako. Agian iruzkin baterako.

— *Asko ala gutxi da?*, ardura handia ala txikia den galdetu ordez.

Alboetara begiratu du. Arduraz begiratu ere. Egarria nabaritu du. Itzelezko lana begitandu zaio erredaktore-buruaren agindua. Baina ez dauka norekin komentatu. Behar denean, ez dago inor. Erredakzioan inork ez daki zer ari den sufritzen, inork ez daki edozeinen aholkua hartuko lukeela gustura, ataka horretatik onik ateratzeko.

— *Eman, lan hori egiteko beste inor ez zuelako eman al dit niri?*

Ezinean ari da. Bero-bero dauka burua. Han dago bekaduna zur eta lur: beste baten ordenadore inpersonalaren aurrean, orain sabaiari so, orain nagusiaren bulegoko ate gardenari. “Hogeita bost lerro” horiek idatzi zain dago. Nondik hasi? Ze egitura eman idatzi beharrekoari?

— *Eman, beste edozeinek bezain ongi egin dezakedalako eman al dit?*

Mahaitik jaikitzekoa egin du, baina, ezertan hasi aurretik, gona luzatu du eskuekin: erredakzio-gela oso-osea zeharkatu behar du, eta ez du inoren begiraturik bereganatu gura. Nahikoa urduri dago jada. Komunerako bidea hartu du: urbotilatxo bete behar du.

Ez gaitezen luzatu aurkezpenetan. Hauxe da koadroa: hogeita bost lerro, ez dakizu nondik hasi eta ez duzu inor laguntzeko.

HURRENGO URRATSA TOKATZEN DA ORAIN. Argi dago zein den zure egoera, eta, hitz batez laburtzearren, utzidazu ezaugarritzen ez dela *erraza* esanda; eta, bigarren adjektibo baterako tartea utziz gero, utzidazu esaten *latza* ere badela. Baina, bizitza ez da hor amaitzen, ezta kazetari berri batena ere. Jakizu: zuk duzun arazo hori bera beste batzuen ere izan dela lehenago, baita orain idazten dizunarena ere, jakina. Bizirik atera gara, eta bizirik aterako zara zu zeu ere.

Bai. Bete ezazu botila. Segi dezagun.

Arduraten gaituzten hogeita bost lerro horiek guztiek badute arazo pertsonal bat, ikusi dugu: zeurea, hots, hasiera-punturik eza eta laguntza barik egotea. Eman lezake hori dela kontu honetan giltza nagusia. Ez da horrela baina.

Zure hogeita bost lerro horiek badute arazo sozial bat berekin, zeren ardura publiko bat utzi baita zure eskuetan: gizarteari dagokion patata bero bat utzi dizu eskuen artean erredaktore-buruak, eta (bizirik ateratzeaz gain) zeuk zuritu behar duzu hori.

Une honetan, arduratu, arduratzen nau azaldu ahal izateak ideiak nola gorpuzten ditugun paperean. Ideia horiek zelan antzematen ditugun ideia benetan on legez, eta zer beharko gukeen gure egia horietaz inor konbentzitzeko.

Alegia: argudiatzen erakutsi behar dizut, eta buruko min ederra ematen dit horrek.

Kontuz gonarekin.

Argudiatzen ikastea ez da ardura berria. Erraz imajina dezakezu hori. Arazo bera zuten Aristotelesek eta Averroesek, hamasei mendek banatzen zituzten arren. Arazo bera zuten Spinozak eta Deskartesek. Berbera dute Xabier Letek, Josanton Artzek eta Joxe Azurmendik.

Nondik hasi behar dut? –idatzi duzu zure koadernoan. Ez dudala ikusi uste duzu, baina ikusi dizut. Ez ikusia egingo dut. Hor segitzen duzu zeureari ekin eta ekin. Lehen *n*-a luzatzen hasi zara, barraskilo bat egin duzu lehen hankarekin, eta azken *t*-arekin gurutze bat egin duzu lehenengoz; gero, segituan, lotsatuta, igitaia egin duzu, eta azkenean dena ezabatu duzu. Edozein banintz, ez nizukeen ikusiko, baina ikusi egin dizut.

Berriz idatzi duzu: ‘Nondik hasi behar dut?’, oraingoan letra neutroaz, ia-ia *times* estilokoan.

HASTEKO, IDATZ EZAZU adituak bat datozen horretaz. Oro har, hasteko, adituek zalantzazkoa bihurtu ez duten horretaz izan litezke zure lehen hitzak. Aholku atzerakoia dela esango didazu. Agian hala da. Hobeagorik ba al duzu?

Eta, ondoren? –diostazu larri-larri. Hiru kontsiderazio egin ditzakezu: bat, adituen hitza zeure egin eta hortik aurrera jo, hartu horiena zure trenaren errail modura eta aurrera segitu; bi, kritika itzazu adituen hitz horiek bortizki, begetaria-noak odolostea bezainbat; eta, hiru, zeure iritzi propioa azaldu. Beraz: musu eman, zalapartan hasi, *edo-eta-ala* bide berriei ekin. Horra bidea.

Aholku bat, laguna. Argi eduki ezazu gauza bat: ezer izatekotan, tradizioa dela iritzia, batetik; eta, bestetik, ikuspuntu berria eta hitzarmena. Idatzi behar dituzun hogeita bost lerro horietan lekua egin beharko diezu horiei hiruei.

Tradizioa. Ez zara martetarra. Zureek zer diote horretaz? Zer idatzi izan dute zureek lehenago horretaz? Izan hori gogoan. Zureentzat idazten duzu; besteek ere irakurriko dizute, jakina.

Ikuspuntu berria. Non dago egia arazo horretan? Zer da argi ikusteko modukoa? Zer da espekulatiboa? Zer da ametsa? Zer iraultza? Pentsa ezazu. Pentsatu.

Hitzarmena. Zure indarrak ez dira nahiko, zure proposamena aurrera ateratzeko; hartara, besteak ere beharko dituzu. Zertarako idazten duzu, adostasun berriak pizteko ez bada?

Tradizioa, ikuspuntu berria eta hitzarmena. Horra argudioaren ardatzak.

AHOLKUEKIN SEGITUTA, beste gauza bat: *orokorra eta partikularra uztartzen* ikasi beharko duzu zure hogeita bost lerro horietan. Edo, bestela esanda, partikularra eta orokorra. Barkatu; txiste txarra izan da, erraza. Ez nukeen egin behar. Baina egin, egin dut, eta barkatu.

Argudio orotan jauzi bat dago, jauzi kualitatibo bat; eta, ez dagoenean, ez zara ezer egiten ari. Jakina, jauzirako, nonbait hartu beharko duzu arnas aurrera egiteko; batzuetan, orokorra arnastuko duzu partikularra marrazteko, besteetan kontrara egingo duzu, eta partikularretik egingo duzu salto unibertsalera. Baina juizio batek, iritzi batek horixe eskatzen dizu: jauzi egitea, arrisku bat zeure egitea, aurrera jotzeko. Bestela, zertarako idazten duzu?

Deskribapen bat ez da argudio bat. Narrazio bat ez da argudio bat. Ezta albiste bat ere. Batez ere, arrisku bat zureganatzea eta berori azaltzea da argudio bat.

— *Eta, kasualitatez, besteak ez baletoz nirekin bat?* –galdetzen didazu.

Eta, zu zeu? Ez da nahikoa izango hori, baina hasteko moduan gaude, baldin eta idatzi duzunarekin bat bazatoz. Hartara, isiltzekotan, isildu zaitez arrazoirik ez duzunean, ez besteek arrazoia ematen ez dizutenean.

Zure hogeita bost lerro horiek idazteko, transferentzia bat egin beharko duzu. Egin behar duzuna da zentzu-transferentzia bat. Hitz baten zentzu-transferentzia

bat egin beharko duzu. Hitz baten berezko esanguratik bestelako esangura zehaztura, matizatura, zehatzera egingo duzu ihes. Edo amets baten zentzu-transferentzia bat egingo duzu. Edo pentsamendu batena. Edo ikerketa batena.

Bitartean, ahal baldin baduzu, eman historiaren baten aipua, anekdotaren bat, zure irakurleen interesa zureganatzeko. Gai serioa eman dizute, baina irakurleak ez du errurik. Ilustrazio batek asko lagun dezake. Adibide batek asko justifika lezake. Eutsi, ahal duzun bezainbeste, mundu errealekiko harremana; ez da beti beharrezko, baina ez dago gaizki, hasteko.

ORAIN ARTE ESANDAKOAK betez gero, pozik utziko duzu erredaktore-burua.

Gehiago ikasi nahi baldin baduzu, erdu aurrera. Zeren itsaso zabalean sarea botatzea baita argudioekin janzteka kazetarion lana. Ez da prentsurreko batera joan eta han kontatu dena azaltzea hartzaileari. Kazetaritza-lan duin askoa da hori, ondo egiten denean. Baina harago doan sormen-lan bat egitea da hemen proposatzen zaizuna.

Arrazoiak bilatzea, arrazoiak sortzea da ikasliburu honetan planteatzen zaizuna. Argudiatzea sortzea baita. Argudiatzea asmatzea baita. Tentuz egin behar da hori. Edozein asmakeriak ez du balio. Ez da istorio faltsuak eraikitzea hemen eskatzen zaizuna, gauzen, kausen muina atzematen saiatzea baizik. Hartara, asmatzea zentzu bitan: sortzea eta igartzea.

Erromatar-garaiko erretorika-eskuliburu ospetsuenean idatzi zenez (*Rethorica ad Herennium*, I, II), «Kausa bat gertaeraz edo gertagarria bihurtu dezaketen egiazko nahiz egiantzeko diren argudioak aurkitzea da asmatzea». Ongi asmatzea da kausa bat gertaeraz edo gertagarri egin dezaketenean arrazoiak irudimenez sortzea eta lantzea.

Horixe da zure eginbeharra. Handia duzu erronka.